

ARAU-ALDAKETA PROPOSAMENA, EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUA, ERAIKIN, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEN ZERGA ARAUTZEKO ORDENANTZA FISKALAREN INGURUAN

Gehitze-proposamena, eranskinaren 5. puntuan, Udalbatzak interes bereziko edo Udalaren mesederako obratzat jotako obrei buruzkoan.

Puntu berri bat gehitzea, honako hau dioena:

"Parte Zaharreko eta Portuko Merkataritza Birgaitzeko Planaren barruan dauden merkataritza-lokaletan eta Udalbatzak onartutako hiriko beste eremu batzuetan ezar daitezkeen beste merkataritza-ardatz estrategiko batzuetan obrak egitea. % 0,25"

Justifikazioa: Foru Arauak 5.1 a) artikuluan zergaren ordainketaren % 95erainoko hoberia ezartzeko aukera arautzen du, besteak beste, interes berezikotzat jotzen diren obretan, enplegua sustatzeko. Donostiako Udalbatzak berriki onartu du Parte Zaharrean eta Portuan Merkataritza Birgaitzeko Plan bat diseinatu eta ezartzeko beharra. Ildo horretan, beharrezkotzat jotzen da, behin plana onartuta, eremu horretan edo merkataritzako ardatz estrategikotzat har daitezkeen beste batzuetan merkataritza-lokaletan obrak egitea sustatzen laguntzea.

Donostia, 2025eko abuztuaren 7a

Juan Karlos Izagirre Hortelano
EH Bildu udal taldeko bozeramailea